

«ZORIGAIZTOKO ARABIA»

«Arabia Zoriontsua» zena txirotasun eta gerra eremu bilakatu da azken urteotan

 **MUNDUA /** Dabid LAZKANOITURBURU

Antzinatean “Arabia Zoriontsua” bezala bataiatu zuten Yemen. Izan ere, Arabiako basamortuarekin alderatuta, Yemengo lurra aberatsa da eta bertako hiriak munduko zaharrenetarikoa dira. Greziako, Erromako eta Egiptoko inperioek ondo ezagutzen zituzten Yemengo landetan hazten ziren produktuak edota bertako erreinuetatik igarotzen ziren jaki eta espeziak. Asia eta Afrikaren arteko merkataritza harremanetan ardatz estrategikoa zen Yemen, Bab al Mandeb itsasartearen bitartez.

Bada, gaur egun, herrialde arabiarren artean txiroena da. Umeen hilkortasun tasa %57an dago, bizitza itxaropena 64 urtekoa da eta biztanleen %40 analfabetoak dira. Hori gutxi balitz, porrot egindako estatua dela dirudi gero eta argiago, gerratan itotako estatua. Nola demontre bilakatu da garai bateko “Arabia Zoriontsua” egungo “Zorigaiztoko Arabia”?

Asko hitz egin daiteke herrialdearen porrotaren arrazoi historikoei buruz. VI. mendean Sasanidarren Inperioak inbaditu zuen lurraldea eta, munduko zonalde hartako merkataritzan zuen garrantzia galtzeaz gain, bertako nekazaritza eta artisau ekoizpenek hondoa jo zuten pertsiarren inbasioaren eraginez. Beste aditu batzuek islamaren iritsiera ere azpimarratzen dute krisiaren hasiera gisa. Izan ere, erlijio musulmana bere egin zuen lehen herrietako bat izan zen Yemen, eta asko izan zirenislama hedatu asmoz Al Andalusera, Afrikako iparraldera eta Asia aldera abiatu ziren yemendarrak. Jaioak eta kultuak ziren irten zirenak eta hutsunea nabaritu zen Yemenen bertan geratutako eliteen artean.

LEHOIAREN BUZTANA

Geografikoki, ekonomikoki eta politikoki hibrido bat da Yemen. Betidanik Afrikako kontinentearekin lotura eta harreman ekonomiko sendoak izan ditu (migrazioak ahaztu gabe), baina, bide batez, yemendarrek lehen

arabiarrek direla aldarrikatu izan dute betidanik. Harrotasun horrek ez die, ordea, mesede handirik egin eta egun Pertsiar Golkora eta oro har arabiar mundura erabat kateatuta dago Yemen. Kateatuta diogu, lotura horrek ez baitio onurarik ekartzen, arazoak baizik. Arabiar Ligan ez du inolako pisurik eta nazioarteko indarrek, batez ere Ameriketako Estatu Batuek, Saudi Arabiako lurralde erantsia balitz moduan ikusi dute beti Yemen. Baita orain ere.

Paradoxa dirudi baina VI. mendean Sasanidar inperioaren

jardunak Yemen nora ezera kondenatu zuen moduan, egungo eskualdeko potentziek, saudien erreinuak lehenik eta behin, gogor eusten diote Yemen itotzen duen soka estuari. Saudi Arabiak beti ikusi du Yemen gertuko lehiakide estrategiko gisa. Saudi Arabiak baino lau milioi biztanle gutxiago ditu Yemenek, baina saudien erreinuan biztanleen %40 atzerritarrak dira. Hori bai, Ryaden beldurra ez da demografikoa soilik, ezta lehia ekonomikoa ere: Yemengo bilakaera demokratikoa, kontraesanez betetakoa izanik ere, Ryaden

Sana Yemengo hiriburuko merkatu baten aurkako atentatuaren ondorengo hondamendia. MOHAMMED HUWAIS | AFP



teokrazia bortitza jasaten duten herritarrentzat adibide bilakatu daiteke. Hori dela eta, Yemen zaitu eta ahuldu baten alde bideratu izan ditu beti bere indarrak Saudi Arabiak.

Baita oraingoan ere. Ryadek bultzatuta, lau hilabete bete ditu egunotan Yemengo gerrak (lehen bonbardaketak martxoaren 26an hasi ziren). 4.000 dira jada hildakoak, erdia baino gehiago zibilak. Ia milioi bat eta erdi dira etxetik ihes egin behar izan duten yemendarrak. Herrialdeak 21 milioi biztanle ditu eta %80 laguntza beharrean dira. 10 milioik jakiak eta ur edangarria lortzeko arazoak dituzte. Nola ez, herrialdeko azpiegitura kaskarrak erabat suntsitu dituzte liskarrek eta Yemengo ondare artistiko eta erlijioso aberatsa, batez ere Sana hiriburua famatu izan duena, hondatu dituzte hein handi batean saudiek eta Arabiar Emirerri Batuek gidatutako bonbardaketek.

Zenbakiak izugarriak izanik, zenbakiak baino ez dira tamalez gero eta oldarkorragoa den mundu honetan. Gainera, gerra ez da azken lau hilabeteotako kontua Yemenen.

HUTHIEN MATXINADA

2014ko irailaren 21a. Sana hiriburua hartu eta hegorantz abiatzen da huthien matxinada, herrialde osoa eskuratu asmoz. Gobernuak ezin die huthiei aurre egin, armada kuarteletan lasai-lasai geratzen delako. Parlamentuak eta presidentearen jauregiak hainbat eraso pairatu ondoren, Abd Rabbuh Mansur al Hadi presidentek eta bere gobernu osoak Ryadera ihes egiten dute babes bila.

Baina zeintzuk dira huthiak? Gutxiengo zaidiaren klanetari-ko bat osatzen dute. Zaidiak xii-tak dira, Zaid bin Aliren (695-740) jarraitzaileak. Ali eta Hussein lehen iman xiiten ondorengo izanik, zaiden jarraitzaileek imanatoa eraiki zuten Yemengo iparraldean 893. urtean, mila urte iraungo zuen erregimena. Zaidiek Yemengo biztanleriaren herena osatzen dute eta Saadako eta Nayrango eskualdeetan dute gotorlekua.

Baina, Shafi eskolako sunitak gehiengo dira Yemenen, batez ere hegoaldean. Zaidien xiismoa, berriz, ez da batere berekoi edo sektarioa. Korronte erlijioso aberats horren barnean, zaidiena da suniten aldetik onargarriena eta bateragarriena bezala kontsidera daitekeena.

Huthien bilakaera, ordea, bes-telakoa da. 1963. urtera arte boterean egon eta gero, zaidien eliteek eta herritarren zati batek adskripzio sektarioari muzin egitea erabaki zuten Yemengo identitate musulmana sendotzeko bidean. Ali Abdallah Saleh presidente ohiak, zaidia bera ere, gauza bera egin zuen, baina prozesuak tirabirak sortu zituen. Diskriminazioa pairatzen zutela salatu zuen huthien klanak. Sana beraren erantzuna bortitza izan zen eta 2004an Yemengo Gobernuaren eta huthien arteko gerra hasi zen.

Bitartean, huthiek bere egin zuten xiiten unibertso sinbolikoa eta borroka. Irango Errepublikak Islamikoa ahalbideratu zuen iraultza eredu hartuta, eta Hezbollah erresistentzia talde libanoar eta xiitaren borrokarako grina aldarrikatuz, mugimendu xiita militante bihurtu da huthiena (Ansarullah izena hartu zuten). Ordutik hona, huthien atzean Iranen eta Hezbo llahren arnasa eta, garrantzitsuagoa, armamentua sumatzen da, gehiago bada ere erretolikan errealtatean baino.


Gerrari dagokionez, 2004an hasitako huthien aurkako gerrak sei urte iraun zituen, 2010era arte. Bakea baina ez da herrialdera itzuli.

SALMAN ERREGEAREN AURKEZPENA

Abdallah errege saudia urtarri-lean hil eta gero, bere anaia eta ondorengo Salman errege berriak Yemenen aurkako azken gerra bultzatu du, batez ere Defentsa ministroa den bere seme Mohamed Bin Salmanen eskutik. Xiiteen ustezko edo benetako mehatxua erabili dute horretarako. Ryadek deia luzatu zien gainerako estatu arabiar eta musulmanei Iranek Yemen mendean hartzeko omen dituen planei aurre egiteko herrialde

Geografikoki, ekonomikoki eta politikoki, hibrido bat da Yemen. Afrikarekin harreman sendoa izan du beti, baina, arabiarren sorterrria izanik, Pertsiar Golkora kateatuta dago

Saudi Arabiak beti ikusi du Yemen gertuko lehiakide bezala. Herrialdean eman diren mugimendu politiko aurrerakoiak beldurrez begiratu izan ditu beti Ryadeko teokraziak



Miliziano huthia. MOHAMMED HUWAIS | AFP

sunitetako armaden arteko koalizioa osatzeko.

Koalizio sunitak ez du arrakasta handirik lortu. Pakistanek nahiko arazo ditu jada bertako talibanekin eta hauek sarritan gutxiengo xiitaren aurka egiten dituzten sarraskiekin. Al Sisi militar kolpistaren Egiptok ere hitz politikak erabili zituen, baina auzi horretan ez bustitzea erabaki du, Saudi Arabiak eskaintzen dizkion milioika petrodolarrak arriskuan ikusten ez dituen bitartean behintzat.

Horiek horrela, Ryadek eta Pertsiar Golkoko bere erreinu aliatuek zaidien lurraldeak eta Sana Yemengo hiriburua erasotzeari ekin diote. Bide batez, hegoan huthien erasoak gelditzea lortu dute, eta azken egunetan Aden hiria «askatutzat» jo du erbesteko Gobernuak.

ANALISI SEKTARIOAK, NONAHI

Dudarik gabe, Saudi Arabia maisua da besteei sektarismoa leporatzen bere sektarismoa inposatzeko. Munduko teokraziarik handienak –agian Israelgo nora ezaren baimenarekin– jaiotzetik du bekaturia. Sauden tribuak hitzarmen bat sinatu zuen 1744an Muhammad ibn Abd al-Wahab teologoarekin, wahabismoa izeneko mugimendu atzerakoia (ahistorikoa askoren iritziz) hedatuz. Hitzarmena indartzeko Saud berak bere alaba ezkontzarako eman zuen. Hitzarmen horrek izugarritzko eragina izan du eta du egun munduan, batez ere jihadismoa, Al-Qaeda eta Estatu

Islamikoa bezalako mugimenduen bilakaeran.

Hori oinarri hartuta, asko dira Yemengo gerra sektarioa salatu asmoz analisi sektarioak erabiltzen dituztenak. Horien iritziz, huthiena Yemengo mugimendu askatzailea litzateke. Are gehiago, 2011n Yemenen sortu zen matxinadaren salbatzaileak lirateke huthiak. Errealitateak, ordea, ez du hipotesi hori inolaz ere babesten. Eta ez bakarrik huthiak ez zirelako matxinada haren lehen lerroan izan, errebolta horren jomugan zegoenarekin –Saleh lider ohiarekin hain zuzen– bat egin dutelako baizik; uneotan, elkarrekin borrokan ari dira. 2011ko ekainean ia erail zuen atentatu baten osteko negoziatioetan boterea utzi behar izan zuen arren, armada gehiena, Guardia Errepublikanoa tartean, kontrolpean du oraindik Saleh berak eta huthiekin ituna mantentzen du oraindik ere, Ryaden presioei muzin eginez.

2011KO MATXINADAREN PORROTA

Azken finean, botere lehia bortitz baten aurrean gaude Yemenen. Botere lehia, baina, 2011ko matxinadarekin areagotu egin zen eta matxinadaren porrotaren ostean guztiz atera da bere onetik, gerra bilakatuz.

Gainerako herrialde arabiarretan bezala, Yemenek matxinada ezagutu zuen 2011 hasieran. Arrazoiak antzekoak ziren: pobrezia, ustelkeria, askatasun eta etorkizun falta... Ali Saleh

AL-QAEDAREN ERREINUA ETA ISIS-EN ESPERANTZA

Al-Qaedaaren gotorleku bilakatu dira azken urteotan Yemen hego-ekialdeko hainbat eskualde. Bin Ladenen aita bera Hadramut eskualdekoa zen eta “USS Cole” Ameriketako Estatu Batuetako armadaren itsasontziaren aurkako erasoak Adenen izan zen 2000ko urrian, hurrengo urteko I-11ko atentatuak iragarritz. Ameriketako Estatu Batuetako egungo «terrorismoaren aurkako» estrategiaren ardatza diren drone bidezko erasoak ere Yemenen egin ziren estreinakoz, ustez eraso hura antolatu zuen Al-Qaedako buruzagi baten aurka, 2002ko azaroaren 3an. Egun, Al-Qaeda eta ISIS bere eszisiaioa –Estatu Islamikoa– huthien aurka egiten ari dira atentatu odoltsuen bidez.



Neska bat negarrez, bonbardaketa baten ostean.
MOHAMMED HUWAIS | AFP

presidenteak 33 urte zeramatzan boterean. Petrolioaren ku-deaketa, negozioak eta armada bere ingurukoen artean banatuta zeuzkan. Agintean mantentzeko tribuen artean liskarrak eragiten zituen, edota zuzenean gerrak asmatu. 2004an huthien aurkakoa adibide bat da. Badaude gehiago.

Matxinatuen artean lau indar suma zitezkeen: gazte iraultzaileak, Aldaketaren Plazako kanpaldia hasieratik bultzatu zutenak; Anaia Musulmanak, Al Islah alderdikoak; Yemengo hegoaren autodeterminazioa exijitzen zuten taldeak; eta huthiak.

ERREPRESIO BORTITZA

2011ko martxoaren 18an 100.000 manifestariren aurka tiroka hasi zen Guardia Errepublikanoa teilatuetatik, 50 hildakotik gora eta ehunka zauritu eraginez. Ali Saleh presidentearen bigarrena zen Ali Mohsen al-Ahmar jeneralak sarraskiak soldaduen artean sortutako egoenezina aprobetxatu eta presidentea bakarrik utzi zuen. Hain zuzen ere, Huthien aurkako gerran lortu zuen ospea Ali Mohsenek. Gazte Iraultzaileek ere ez zuten begi onez ikusten. Are gutxiago salafista amorratua dela

kontuan hartuta –Al-Qaeda-ekin harremanak izan dituela dioenik ere bada, baita CIAn bertan ere–. Baina Armadaren lehen dibisio blindatuak Aldaketaren Plaza babestu zuen eta Guardia Errepublikanoari aurre egin zion Sana hiriburuan eta beste eskualde batzuetan. Matxinada gerra zibil bilakatzeko arriskua gero eta handiagoa zen.

Horiek horrela, matxinada kontrolatu eta bideratzeko –edo desbideratzeko– asmoz, eta Ameriketako Estatu Batuen oniritziarekin, Saudi Arabiak trantsizioa bultzatu zuen. Bahreingo errebolta tiroka menderatu ondoren eta erreinuaren barnean bertan ere protestak sortuko ziren beldurrez, Ryadek auzian esku hartzea erabaki zuen.

Yemenen botere lehia bortitza ematen ari da azken urteotan. Lehia, ordea, bere onetik atera da 2011ko matxinadaren porrotaren ondoren, gerra bilakatuz

Huthiek beren aukera ikusi zuten. Iparraldeko gotorleku menditsuetatik jaitsi eta Sana hiriburua indarrez hartu zuten. Ez ziren horrekin konformatu eta hegoaldera jo zuten

Presidenteak bere jauregiko meskitan jasandako atentatua baliatu eta larriki zauritutako Ali Saleh Ryadera eraman zuen. Mansur al-Hadi presidente ohiak hartu zuen bere lekua. Al-Hadi Saleh beraren kide izandakoa dugu, Hegoaldeko Yemen sozialistaren (Yemengo Errepublikan Demokratikoa) jeneral ohia eta 1994an Iparraldearen eta Hegoaldearen artean sortutako gerra zibilean Salehrekin bat egin eta bere herrikideen aurka egindakoa.

ANAIA MUSULMANAK

Hadiren Gobernuaren barnean, ordea, gero eta pisu nabariagoa zuten Al-Islah alderdia osatzen duten Anai Musulmanek eta bere aldeko elite tribalek. Anaiarte musulmana boterea eskuratze-ko prest zen eta hori ez zen inolaz ere askoren gustuko. 2013ko uztaillean estatu kolpe batek Mohamed Morsi Egiptoko presidentea giltzapetu zuen, Anaia Musulmanen aurkako errepre- sio izugarria abiaraziz. Saudi Arabiak ere etsaitzat du mugimendu islamdarra eta gogo onez lagundu zion Al-Sisi egip- toar mariskalari.

Huthiek beren aukera ikusi zuten. Yemengo iparraldean haserrea zen nagusi Hadi eta bere inguruko hegoaldeko politika- rien aitzindaritzarekin. Matxi- nadak sortutako itxaropenak ere ezerezean ziren ordurako. 2014ko ekainean petrolioaren prezioak merkatzeko Estatuaren laguntzak bertan behera utzi zituen Gobernuak, gasolindegie- tan jendearen artean izugarri- ko haserrea piztuz. Egoera horretan, huthiak Sanara jaitsi eta hiriburua indarrez hartu zu- ten. Herritar askok, izan zaidi, shaafi, xiita ala sunita, pozik hartu zituzten. Huthiek 2011ko iraultza berreskuratze-ko asmoa zutela ziurtatzen zuten, gainera.

EZKUTUKO ASMOAK

Asmoa bestelakoa zen, ordea. Alde batetik, Ali Mohsen jenera- lak zaidien aurka egindako era- soak eta sarraskiak gogoan zi- tuzten. Mendekuaren ordua zen. Bestetik, Anaia Musulma- nekin ere aspaldiko kontuak zi-

tuzten konpontzeke. Sanan bo- terea eskuratzearekin ez ziren konformatu huthiak eta hegoal- derantz egin zuten, lurraldeak eskuratu asmoz. Itsasora irten- bide bat aldarrikatzen zuten, baina helburua Bab al Mandeb itsasarte estrategikoa zen. Ho- rrek argi gorri guztiak piztu zi- tuen bai Ryaden bai Ryadetik haratago. Hasiera batean, Saudi Arabiak ez zuen ezer egin hut- hien erasoaldiaren aurka. Al Ha- diren Gobernua sagar ustela bailitzan erortzen utzi zuen.

Zergatik saudien utzikeria? Denbora igaro ahala, ulertzekoa da Ryadek erabilitako taktika. Erregimen saudiak egiten utzi zien huthiei, Sanako Gobernu- ren ahulezia agerian uzteko. Bide batez, Anaia Musulma- nek –erreinu wahabiak mundu islamdarrean dituen lehiakide nagusiak– jipoi ederra hartzen zuten, Ryaden pozerako.

Huthien eraso- a ia Yemen osoa zaidien esku uzteko arriskura iristean, ordea, mugitzea eraba- ki zuen Ryadek. Horrela uler- tzen da Saleh berak 2011ko udazkenean boterea uzteko konpromisoa hartzean –hori bai, immunitatearen truke–, Ryadek Yemenera bueltatzen uztea. Zergatik eta zertarako? Ondo baino hobeto zekitelako saudiek presidente ohia ez zela geldirik egongo eta oraindik zuten, eta duen, boterea manten- tzen saiatuko zela.

Politikan atzoko etsaia gaurko kidea da. Huthiak Salehrekin adiskidetu ziren euren asmoak gauzatzeko. Saleh berak ere gau- za bera egin zuen eta huthien erasoaldia erabili du bere orde- z eratutako Gobernua ahuldu eta bere garaian kide izandako ho- rien traizioagatik –Hadi presi- denteordea, Anaia Musulmanak eta Ali Mohsen jenerala– men- dekua hartzeko. Eta horien guz- tien gainetik Saudi Arabia dugu, batzuk eta besteak erabiliz beti bere interesen arabera. Eta inte- resa beti bat eta berbera izan da: Yemenen patua erabakitzea.

IBILBIDE HISTORIKO LATZA

Yemengo historian atzera egin besterik ez dago herrialdeak izan duen bilakaera gaiztoa

ulertzeko. Arestian aipatu beza-
la, zaidiek milurtea bete zuten
boterean, 1962ko estatu kolpera
arte. Batez ere iparraldeko es-
kualdetan ziren indartsuak, bai-
na betidanik izan dute Yemen
osoa gobernatzeko grina. Borro-
kalari sutsuak, Otomandar In-
perioari ere aurre egin zioten
eta Istanbulko Ate Gorenak zai-
diekin negoziatu behar izaten
zuen beti. Menderaezinak.

Mahoma profetaren oinorde-
koak izaki (sada tribukoak ale-
gia), zaidiek mila urtez nolabai-
teko teokrazia autarkiko bat
mantentzea lortu zuten. Oto-
mandarrek, eta ondoren britai-
niarrek, hegoaldeko hiriekin
konformatu behar izan zuten,
batez ere Adeneko portuarekin.

Egungo ikuspegitik astakeria
dirudien arren, zaidien imana-
toaren eta erregimen wahabi
saudiaren bilakaera antzerakoa
da. Biek erlijioa dute ardatz na-
gusi. Lehenak, orde, ezin izan-
go die XX. mendeak aurrera
egin ahala pairatutako erasoei
aurre egin. Sauden tribuak, or-
dea, AEBekin sinatutako itun es-
trategikoarekin eta petrolioak
eskaintzen dion aberastasuna-
rekin, zutik eta tinko manten-
tzea lortu du, gaur arte bederen.

1948an, zaidien imanatoaren
erregimena hausten saiatu zi-
ren Shaafi eskolako sunitak or-
dezkatzen dituzten Anaia Mu-
sulmanak eta beste hainbat
talde liberal. Saudi Arabiak, or-
dea, zaidiei imanatoa manten-
tzen lagundu zien.

KAIRO VS RYAD

1952ean Gamal Abdel Nasser
militarrak boterea eskuratu
zuen Egipton. Imanatora konde-
natuta zegoen. Nasserrek, bere
panarabiar idelogiarekin, Ye-
mengo oposizioa indartu zuen.
Hamar urte geroago haziak frui-
tua emateko ordua iritsi zen.
Naseristek (Yemenek ere “ofizial
askeak” ditu, Egiptok izan zi-
tuen moduan), Baath alderdiko
kideek eta Anaia Musulmanek
bat egin zuten imanatoaren
kontra 1962ko irailaren 26an,
estatu kolpe bat emateko.

Saudi Arabiak imanaren alde
egin zuen berriro, eta saiakera
hiltzorian zen. Nasserrek solda-

duak bidali zituen orduan. On-
dorengo gerra zibilak bost urte
iraun zituen. Nasserrek eta Ye-
mengo errepublikarrek irabazi
zuten, baina garaipen latza izan
zen Egiptorentzat: 25.000 solda-
du galdu zituen Naserrek (adi-
tuek diotenez, Yemen Egipto-
rentzat estatubatuarrentzat
Vietnam izan zena izan zen,
edota sobietarrentzat Afganis-
tan). Gainera, 1967ko Sei Egune-
tako gerran izugarrizko porrota
jazo zuen Egiptok Israelen au-
rrean. Nasserren bukaera zen
eta Egiptok eta Saudi Arabiak su
etena adostu zuten Yemengo
Errepublika Arabiarrari ongieto-
rria emanez.

YEMEN «SOZIALISTA»

Hegoaldean gauzak desberdinak
ziren; Iparraldean bezain odol-
tsuak, baina ezberdinak. 1869.
urtea da Aden hiriaren eta ingu-
ruko eskualdeen kolonizaziori
hasiera “ofiziala” eman ziona.
100 urteren buruan, hegoalde-
an askatasunaren etsaia ez zen
zaidien imanatoa, britainiar
metropolia baizik. Adenen kolo-
nietako herritarrez osatutako
langile mugimendua (indiarrek,
hegoafrikarrak...) oso indartsua
zen. Hegoaldeko tribuek ere ge-
ro eta okerrago jasaten zituzten
kolonizatzaileen gehiegikeriak.

Iparraldean borrokatzen zuen
bitartean, Nasserrek hegoaldeko
kolonialisten aurkakoei lagun-
du zien. Baina Adenen ez zuten
naseristek irabazi, marxistek
baizik. Nazio Askatasunerako
Fronteak (Palestinaren Askata-
sunerako Herri Frontearekin ha-
rreman zuzena zuen) koloniza-
tzaileen aurkako gerrari ekin
zion. 1967an amore eman zuen
Londresek eta bere soldaduak
Yemenetik atera zituen.

Asko idatz daiteke Yemengo
Errepublika Demokratikoaren
onura eta porrotei buruz. Labur-
bilduz, eta alderdi barneko tira-
bira odoltsuak ahaztu gabe, Ye-
men sozialista ez zen gai izan
gizartearen tribalismoa gaindi-
tzeko. Era berean, ekonomia ar-
loan ere ez zuen asmatu. Ildo
horretan, Sobietar Batasunaren
eta oro har «sozialismo erreala-
ren» nora ezak ez zion batere la-
gundu.

Aurreikuspen sektario hutsaletan oinarritutako analisiek (huthiak erregimen zaharraren alde, saudiak hegoaldeko «sozialistekin»...) ez dute balio Yemenen gertatzen ari dena ulertzeko

«Yemen ezagutzen ez baduzu, ez duzu mundu arabiarra ezagutuko», esan ohi da. Bada, matxinadaren porrota eta ondorengo gerra zibila dira horren adierazle

1990ean bateratu egin ziren
Yemengo Errepublika Arabiarra
eta Yemengo Errepublika Demo-
kratikoa. Baina hasiera batean
batasuntzat saldu zena -3 milioi
biztanle zituen hegoak eta ipa-
rrean 11,5 milioi pertsona bizi zi-
ren- anexio huts izan zen azke-
nean. Ali Saleh presidenteak
hegoaldeko petrolio esplotazio-
en ustiaketa beretzat eta bere
ingurukoentzat gorde zuen, eta
gero eta baztertuago zegoen he-
goaldeko biztanleria eta Yemén-

go Alderdi Sozialista. 1994an al-
txatu egin ziren Sanaren aurka.
Zaidiekin gertatu bezala, Saudi
Arabia atzerakoiak hegoaldeko
sozialistekin bat egin zuen Sa-
lehen aurka. Nola ez, gerra gal-
du zuten, baina ordutik hona ez
da giroa baretu hegoaldean.

2007an Al Hirak mugimen-
dua sortu zen, hegoaldearen as-
katasuna aldarrikatzen duena.
Mugimenduak federalismoa al-
darrikatzen zuen lehenik, baina
errepresio gero eta bortitzaioak

sezesioa exijitzera eraman zuen
gerora. Egun mugimenduaren
barruan talde armatu bat ere
sortu da. Mugimenduak bat
egin zuen 2011ko matxinadare-
kin, eta huthien aurka Anaia
Musulmanekin eta Saudi Ara-
biarekin borrokan ari da.

Kontuak kontu, huthiak,
erregimen zaharreko kideak,
Ryad, sozialista zen Yemenekin
amesten dutenak... borrokan ari
dira uneotan Yemenen. Eta au-
rreikuspen sektario hutsaletan
oinarritutako analisiek ez dute
balio Yemenen gertatzen ari de-
na ulertzeko. Yemen mundu
arabiarrean laborategi politiko
aberatsa bezain odoltsua izan
delako eta delako, bai barnera
begira bai eskualdeko poten-
tzien ikuspegitik ere. «Yemen
ezagutzen ez baduzu, ez duzu
mundu arabiarra ezagutuko»,
esan ohi da. Bada, Yemengo ma-
txinadaren porrota eta egungo
gerra zibila horren adierazle di-
ra. Adierazle lazgarriak.



Irudian Mansur al-Hadi erbesteratutako presidentearen aldeko iraultzaileak. SALEH AL-OBEIDI | AFP